

IÑAKI ARREGI ikerketa beka



Iñaki ARREGI BEKAREN LEHEN DEIALDIA 2019ko ekaina OINARRIAK

1. XEDEA

Udalerri euskaldunen garapena aztertzeke, ikerketa sustatzeko, euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko eta Iñaki Arregi euskaltzalea omentzeko, honen izena duen ikerketa beka sortzea eta lehen deialdi hau argitaratzea erabaki zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, 2019ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Kontseiluarekin, UEUrekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak diruz babestutako beka izango da.

Lehen deialdi honetan, honako ikerketa esparrua hartuko da kontuan: udalerri euskaldunen garapena. Zehazki, UEMAk, Kontseiluak, Udako Euskal Unibertsitateak, eta Gaindegiak 2018an aurkeztutako Udalerri euskaldunak: prebentziotik garapenera txostenean landutako puntuak nola garatu daitezkeen aztertzea izango da bekaren helburua deialdi honetan. Hemen eskuratu daiteke txostena, osorik:

<https://labur.eus/txostena>

2. ZENBATEKOA


Bekaren zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da.
Bi ikerketa lagunduko dira diruz, bakoitza 5.000 euroekin.

3. HIZKUNTZA

Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz idatzi eta aurkeztuko dira.

4. XEDEA

Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, ikerketaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.



5. AURKEZTEKO EPEA ETA BEKAREN IRAUPENA

Proposamenak aurkezteko epea 2019ko uztailaren 24an amaituko da, eta UEMAren, GFaren, UEUren eta Kontseiluaren ordezkari banak osatutako epaimahaiak, aurkeztutako lanak aztertu ostean, 2019ko irailaren 20an jakinaraziko du saritutako ikerlanak zein diren.

Egun horretatik aurrera, 9 hilabeteko epea izango dute saridunek ikerketa aurkezteko.

ESKAERA EGITEKO ARGIBIDEAK

Informazio gehigarria, oinarriak, eskaera orria eta gainerakoak uema.eus webgunean eskuratu daitezke.

ESKAERA EGITEKO DOKUMENTAZIOA

Beka eskuratzeko eskaerak dokumentazio hau eduki behar du:

1. Iñaki Arregi beka eskatzeko orria, behar bezala beteta (eredua uema.eus webgunean eskuragarri).
2. Egilearen edo egile-taldearen aurkezpen laburra, egoki iritziz gero curriculumaren kontu nabarmenenak ere aipatuz, eta batez ere hizkuntzarekin eta aztergai den gaiarekin lotutakoak zehaztuz.
3. Eskatzaileak ez du berariaz frogatu beharko euskaraz jarduteko gaitasuna, baina proiektuaren azalpenean eta egin beharreko lanean oso kontuan hartuko da euskararen zuzentasuna, bai eskaerak aztertzerakoan eta baita beka eskuratu duenak lana aurkezterakoan ere.
4. Gaiaren azalpena eta lana zelan burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (15 orrialdekoa gehienez), ondokoak azalduz:
 - Lanaren ikerketa esparrua.
 - Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
 - Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia.
 - Helburuak.
 - Materialak, baliabideak eta lan metodologia.
 - Lana garatzeko kronograma.
 - Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
 - Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.

6. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

Dokumentazioa 2019ko uztailaren 24 baino lehen aurkeztu beharko da UEMAren Aulestiko bulegoan (Donibane enparantza 1, 1.a. 48380 Aulesti, Bizkaia).

Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia digitalki ere aurkeztu daiteke, fisikoki aurkeztu beharrean. Kasu horretan, dokumentu guztiak PDF bihurtu, karpeta bakar batean bildu, eta hau hodeian eskuratzeko esteka posta elektronikoz bidali beharko da, honako helbidera: administrazioa@uema.eus

7. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

7.1. Lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiektuaren arabera txosten bat bidaltzea bekaren lehen 6 hilabeteak igarotakoan.

7.2. Bekaren 9 hilabeteak igarotakoan memoria (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) aurkeztea. Lan horren bi ale entregatuko dira, tarte bikoitzez mekanografiaturik, orrialdeak behar bezala zenbakituta eta koadernaturik, baita euskarri digitalean ere.

7.3. Lanaren luzera gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde artekoa izango da (orrialdeko 30 lerroz eta lerroko 60 idazki zeinuz osatuak izango dira, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik). Testua ez den elementu oro orrialdeetan zehar edo, tokirik ez balego, lanaren bukaeran txertatuko da, eranskin gisa. Era horretako elementu bakoitzak behean bere azalpentxoa eta iturria izan beharko du. Edozein kasutan, lanak gutxienez testuko 75 orrialderen baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxienekoak betetzeko. Idazkera funtzio komunikatibora, kohesio sintaktikora, koherentziara eta zuzenketa formalera egokituko da.

7.4. Irudiak, marrazkiak, argazkiak eta abar, amaierako testuan sartuko diren arren, aparteko fitxategietan entregatu beharko dira, gutxienez hazbeteko 150 pixeleko bereizmenarekin. Bekaduna aurkeztutako ilustrazioen ustiapen eskubideen egilea/titularra izango da, baita erator litezkeen irudi eskubideena ere, eta argitaratzeko beharrezkoak diren baimenak izango ditu.

7.5. Bekarako lana bukatutakoan, egileak konpromisoa hartzen du egindako lanaren jendarteratzean eta zabalkundean parte hartzeko. Horretarako, gutxienez, pare bat agerraldi aurreikusiko ditu, hedabideen aurrean zein jendaurrean, UEMAren adostuta.

7.6. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gairiditu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 11. puntuan jasotako neurriak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

8. AURREKONTUA

Oinarri hauen bidez izendatutako beka emateko UEMAk 2019rako onartu zuen aurrekontuaren 2.266.335,00 partidako *Azterketa bereziak* atalean aurreikusitako dirua erabiliko da.

9. BEKAREN ORDAINKETA

Ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak egin ondoren:

- Kopuru osoaren %30a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren %30a, beka ematen denetik 6 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (7.1. oinarriaren arabera) aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.
- Gainontzeko %40a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren. Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 11. puntua (itzulketak eta kalte-ordainak) hartuko da oinarritzat.

10. EPAIMAHAIA ETA IRIZPIDEAK

Epaimahaia udalerri euskaldunen garapeneko, hizkuntza normalizazioko eta garapen iraunkorreko adituek osatuko dute: UEMA, Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UEUko ordezkari banak, zehazki.

Epaimahaiaren erabakia sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko da jendaurrean. Hala ere, antolatzaileek aurretik izango dute erabakiaren berri, eta bekaren irabazleei ere esango zaie, ekitaldiaren egunera arte isilpean gordetzeko konpromisoarekin.

Epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan sariak emateko:

Ikerketa-lanaren kalitatea, zuzentasuna, erakargarritasuna eta orijinaltasuna; hizkuntzaren egokitasuna; irudien eta grafioen kalitatea eta aberastasuna; interes soziala eta diziplina arteko loturak bultzatzeko ahalegina; proiektuak dagokion inguruneko errealitatearekiko duen gertutasuna eta aukeratutako eremuan bideragarria izatea.

Epaimahaiak eman gabe utzi ditzake sariak, aurkeztutako laginek edo proiektuek gutxieneko kalitate-ezaugarriak betetzen ez dituztela iritziz gero.

11. ITZULKETAK ETA KALTE-ORDAINAK

11.1. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria aurkezteko azken epea bukatu baino lehen eta UEMak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu. UEMak berandutze interesak kalkulatuko ditu. Dirulaguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

11.2. Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatuta UEMak errekeritu ondoren saria itzultzen denean, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko du, dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz gain.

12. LANEN JABETZA

Saritutako lanak Creative Commons AITORTU -EZ KOMERTZIAL -OBRA ERATORRIRIK GABE lizentziapean zabalduko dira. Informazio gehiagorako, ikus <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/> esteka.

Proiektuaren zein azken emaitzaren jabea egilea edo egileak izango dira, hala ere lana argitaratzeko, ustiapetzeko eta hedatzeko eskubideak UEMarenak izango dira lehen bi urteetan.

Lanaren emaitzan argi azaldu behar da bekaren laguntzarekin gauzatu dela, esaldi honen bidez: "Lan hau 2019an UEMak emandako Iñaki Arregi bekaren laguntzarekin egin da".

UEMAk berarentzat gordetzen du ikerketak osoki edota partzialki erreproduzitzeko, argitaratzeko eta plazaratzeko eskubidea, bere kabuz edo beste erakunderen batekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

Egileak edo egileek, sortutako materiala argitaratuko balu, UEMari argitaratutako lanaren 20 ale eman beharko dizkio.

13. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Beka eskaera aurkeztean, oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarriek diotena goitik behera onartzen dituela aitortzen du eskatzaileak. Era berean, adierazten du, eskaeran jasotako datu pertsonal horiek bere baietzarekin jaso direla eta onartu egiten duela datu horiei tratamendu automatizatua ematea eta UEMarenak diren eta behar bezala baimenduta dauden fitxategietan jasotzea; eta baimena ematen du datu horiek gai honi lotutako jakinarazpenen kudeaketan bakarrik erabil daitezen. Hala ere, datu pertsonalak babesteko araudi orokorrean aurreikusitako kasuetan, beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei datuok helarazi edo laga ahal izango zaizkie.

Antolatzailea:



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Babeslea:



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



udako
euskal unibertsitatea



Iñaki Arregi Beka

Iñaki Arregi Beka sortu du UEMAk, udalerrri euskaldunen garapena aztertzeko, ikerketa sustatzeko eta euskal soziolinguistikaren inguruko ezagutza areagotzeko

Udalerrri euskaldunak garatzea da euskararen arnaguneetara sendo eusteko modu eraginkorra. Ondorio horretara heldu ziren iaz UEMA, Kontseilua, Udaiko Euskal Unibertsitatea eta Gaindegia, eta udalerrri euskaldunak garatzeko hainbat irizpide eta oinarri proposatu zituzten, horiek guztiak hainbat arlotako adituekin batera aztertu ondoren. Orain, oinarri horiek aintzat hartuta, udalerrri euskaldunak garatzeko adibide praktikoa aztertu eta abiarazi nahi dituzte agintaldi berrian. Horretarako, Iñaki Arregiren omenezko beka sortu du UEMAk, eta bi lan sarituko ditu lehen deialdian, bakoitza 5.000 euroekin.



Uztailaren 24an amaituko da Iñaki Arregi Bekaren lehen deialdira aurkezteko epea.

Euskararen biziberritzean eta bilakaeran, eragin nabarmena dute euskara zerbitzuetatik edo hizkuntza politikako sailetik aparteko beste sailetatik egiten diren politika publikoek.

Hau jakinda, herri erakundearen politikan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko ildoa lantzea izan zen lehen urratsa, proiektu zehatzek kalterik ez eragiteko gune euskaldunen euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean.

Iazko jardunaldian, berriz, beste urrats bat egitea eta prebentzioaren ikuspegitik garapenera igarotzeko beharra nabarmendu zen, eta udalerrri euskaldunen eta arnaguneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak adostu ziren. Oinarri horiek bideratzeko egitasmo zehatzak abiaraztea da orain asmoa, udalerrri euskaldunak garatzeko eta arnaguneetara bizirik eusteko.

5.000 euroko bi lan sarituko dira


Zehazki, udalerrri euskaldunak garatzeko proposamen zehatzak eta bideragarriak

bilatu nahi ditu Iñaki Arregi Bekaren lehen deialdiak. UEMAk sortu du beka, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kontseiluarekin eta UEUrekin elkarlanean.

Lehen deialdi honetan, 5.000 euroko bi lan sarituko dira. Proposamenak eta lehen laginak aurkezteko epea uztailaren 24an amaituko da, eta epaimahaiak irailaren 20an jakinaraziko du diruz lagundutako ikerlanak zein izango diren. Egun horretatik aurrera, saridunek bederatzi hilabete epea izango dute laginak garatzeko eta ikerlanak aurkezteko. Amaitzean, gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde izan beharko dituzte saritutako lanek.

Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute.

Udalerrri euskaldunen garapenarekin ez ezik, soziolinguistika edukiak zabaltzearekin eta udalerrri euskaldunei buruzko ikerketarekin lotura estua izango du beka, eta UEMAk antolatutako jardunaldietan ezagutaraziko dira lan saridunen edukiak.



Iñaki Arregi, UEMAren arima

Iñaki Arregi Ihartza (1953-2010) izan zen UEMAren koordinatzailea, hil zen arte. Ederki zekien UEMAren nondik norakoak eta helburuak gainontzekoei helarazten, eta UEMAren arima izan zen, sorreratik.

Euskaltzale sutsua izan zen Arregi, eta Euskal Herri euskalduna lortzeko bidean ezinbestekoa iruditzen zitzaion UEMAren lana eta lurgunea zabaltzea.